

NIRE BUTAKATXOTIK

Mikel ELORTZA

Helmugako kazetariak: xarmangarriak

Alpe D'Huez edo Gabilier baino inportanteagoa da iberoamerikarra. Gailurra diot. Beroagatik, eta *speakerraren* hitzaspertuari honez gero egiten diodan jaramon gutxiagatik bestetik, konturatu naizenerako Menem eta Castro neuzkan pantailan. Sinetsgaitza! Tourrak kulebroia ordezkatu du, Espainiako Itzulian kulebroiak helmugaratzeak ordubete atzeratu zituenean. Ordurako, dena den, adjetibo frantsesak ikasten nenbilen: bikaina, itzela, aparta, zoragarria. Gehienetan txirrundulari frantsesei egotziak. Arraroa, ezta?

Helmuga aurretik ur handiko arrainek antolatu duten ferian txirrundulariek bi-hirunaka ihes egiten zuten, edo pantailaratzen bederen; eta izena beti bakarra: Rue, Lino, Ledanois. A-2koak Chiappucci eta Induraini eskerrak ematen ihesi ibiltzeagatik, lasterketa animatzeagatik. Imajina ditzaket atzean Manders, Quevedo eta lagunak telebistakoen 'merci-a' birao bihurtzen. Odoluskiak erreta dabilta denak eta beste hauek txori txikiak bezala, saltoka, jolasean. Hurrengo urtean gehientuenek Giroa egingo dute.

Han bai, han lasai ibil zaitezke hainbeste aztoramendurik gabe. Italiarren batek zu amildu, zanga zulora bota edo txistuz estaltzeko arriskua ere badago, baina edozein gauza eromen hau baino hobe. Hanka pelotak gaeuz ezarriraino igotzen omen zaizkie.

Amaiera orgasmikoa izan da. Thierry Marie -nongoa ote?- nagusitu zaie tropeleko sprinterrei Toursen. la Sangregoriorenak ere gogorarazi dizkigute. Emozioa borborka, kazetari trebeena helmugako marra pasa eta sei segundura joan zaio txirrundulari gizajoari. Galdera hiru aldiz luzatu dio, eta hirutan erantzuntzat Thierryren arnas estua eta hasperena jaso du. Gizona oraindik itota eta aldameneko putre guztiak mikroak ezarriraino sartu eta galderarik zorrotzenak egiten: "Hori sprint zoragarria! Bai ondo irabazi duzuna!". Itzali egin behar izan dut, *speakerretariko* bat panejiriko patriota egiten hasi da. Pentsatzen dut amaiera 'Marseilesa' izango zela, besteak koropak eginez. Sentitzen dut, ez naiz horraino iritsi.

Ez da posible, ezin liteke

Heraklito, Kant, Hawkins eta denboraz ihardun duten guztien liburu eta teoriak aztertzen hasiak dira txirrindulariak. Ez dakit intuizioz edo ezagutzaz jakin dituzten denborak, baina ez dut uste oraindik azalpen logikorik aurkitu diotenik. Bugno hotel aldera abiatu omen da 'pobre de mi' kantatzera. Lemondek antolatzaille guztien ordularien azterketa serio bat eskatu eta bere ehizeko eskopeta ere enkargatu omen du. Chiappucci Indurainen bizikleta aztertzeraz joan eiz da, motor ezkutu baten berri izan duela esanez. Rochek etapako bideoa ikusteraz alde egin omen du, ea Indurainek kilometro guztiak osatu dituen ziurtatzera. Linori, erreferentzia ematen zioten bakoitzean, dardara sartzen zitzaion belauetan. Eta abar.

Proposatu ere egin omen dute nafarra erlojuaren kontrako probetan (edo aldeko, egiaz esan ez dakit) bizpahiru kilometro atzeragotik abiatzea, emozioaren izenean besterik ez bada ere. Ikusitakoa komentatzea ez da erraza. Alde batetik, ez dugulako Atarrabiakoa apenas ikusi. Kamarak txirrindulari frantsesei lotuak zeuden nonbait. Bestalde, ordu erdi eman dut adjetiboen bila hiztegietan barrena, eta ez dut egokitzen zaionik topatu. Tourrari estatu kolpea eman dio, goitik behera irauli du. Datorren astean mendia dator. Denen artean hasiak dira Indurainek pasatu behar duen tokitik iltzeak jartzen, eguraldi txarra eskatzen, zela azpian berunatsartzen... eta hala ere, erlojupeko beste 60 kilometro falta dira. Korritzeko prest egongo ote dira?

Egin ezak lo eta jango duk me

“**H**orren atzean hi hintzen”, “segiok hik motel, hi haiz azkarrena”, “neri zuzendariak Ludwigen gurpilari jarraitzeko esan zidak”. Hasieran horrela, anaiaren begiko lastoa ikusiz, ondoren biraoka, zuzendariak etapa amaieran esango dietenez pentsatzen (ez dute ur-botila gutxi igo behar gizarajo hauek aurrerantzean!); azkenik haserre, ez aho bete hortz gelditzeagatik, denei geratu zaien kukumamu aurpegiagatik baizik. Hori, galtzea baino gogorragoa da.

Anartean Guido, Don Guidone, hortzak estutuz baina txistuka, tirolaliroka, errespetoa gordetzearren ez da bizikletatik jaitsi eta haien muturrean barrez lehertzen hasi, “oraingoa ere sartu ziet” keinua aurpegian irudikatzen zaiolarik. Hau bai gizona, hau! Honek bai merezi Joanes Artzaiari jarritako epiteto botaniko sorta. Honi ere, garbi geratu da, ez dio 19 urteko mutil batek jokoan eramango. Ez behintzat azken kilometroetako jokoan.

Botilak ogotzearena atzo ikusitako lanaren beste alderdia dugu. Scirea eta beste zenbait ikusi zitezkeen tropel atzera jaitsi, dozena-erdi botilatxo hartu eta ostera pelotoian gora “onei” ura eramatera. Beharko dirua banatu “onek” bestela... amonak edo eramango die ura. Ala ez, amonak ez, gaur baltsean geratu diren bederatzi txorimaloek.

Ordekan egin beharreko beste astebe-te geratzen zaigu, eta ez dirudi inork kontrola hartzeko asmoa duenik. Ez RMOK, ez sprinterrak dituztenek (GB-MG...), talde indartsuenek ere ez... Eta halaxe gabiltza, sprintik gabe, egunero dozena lagun ihesi eta pastela euren artean banatzen.

Atzoko pena bakarra ‘pabesa’ kentzearena. Ipar guzti hori bi metroko ahuntz-bidez betea dago, eta gaur egun txirindulariek ez dute amore ematen. Ohizko lokatz, dardar, zulatze eta muturrekorik gabe geratu ginen. Hala ere ongi, Don Guidoneri eskeer.

Olinpoko Jainkoak Zelai Eliseotarantz

Lastima, hau pena! Desastrea izan denik ezin esan, baina zorigaitza ia aipatu dute. Gure Jainko berriak ez du lortu inor aurreratzea. Ulergaitza. Azken kilometroetan, dena den, erakustaldi galanta egin omen du eta, tira, sarritan esan digute nafarra ez dela besteak umilatzea gustatzen zaionetakoa. Ba, nafarra izango da, zeren eta telebistakoek umilatu ez, burutik behera kaka egin diezaien desiratzen dutela dirudi. Burua zapaltzea ere eskatuko diote halako batean. Eskerrak atzokoan, hasieran diferentziak ez zirela handiak izango ikusi zen; emozioa eta guzti sentitu genuen 46 kilometrora arte. Handik aurrera betikoak betikoari ekin zion. Bere nagusitasunak aspertu ere egiten du bukaerarako.

Gure lagun mikrodunena ere markakoa da. Etapa arruntetan kristorenak eta bi esaten dituzte, pentsa ze kontaturik ez dagoen erlojupekoan. Txorraden antolojia. Normala da, asko hitze-

gin behar dute eta, badakizue, tximinoia zenbat eta gorago eta uzkia age-riago. Atzo birekin geratu nintzen, aukera zaila dela aitortuta ere. Bat azalpen fisiologiko-teknikoa. Indurain eta antzeko txirrundularien femur luzea. Mirariaren gakoa. Badakizue, zuen seme-alabek ez badute 40 zentimetro-rik gorako femurra izateko itxurarik, ez daitezela bizikletara dedikatu. Etorkizuna atleta femoraletan dago.

Bestea Chiappucciri buruzkoa. Podiumean zegoela. Bere apologia egiten ari zirela esan digute honez gero sartu dela... ez txirrundularitzaren historiara urrezko hizkietan. Keba. Hori gutxi da. "Ziklismoaren mitologian" sartu omen da. *Speakerrak* ez du gehiago zehaztu, baina neu ausartuko naiz. Hala bada, ez dago dudarik Dionisos-en lekua behar duela. Indurainek Apoloren antza gehiago du. Edo Zeusena, zergatik ez, zezen itzura hartu eta Europa bahitu. Konparazioa polita izan liteke.